



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996eko irailaren 20a

50 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamenduari eta balio igoerari mugak jartzen dizkiena (2. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Foruzaingoak dituen baliabideak eta Gobernuaren Jauregiko segurtasun sistemei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (5. or.).

—Tuterako Katedraleko kanpoko argiteriari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (5. or.).

—Itoitzeko urtegira bidaltzeko den Goardia Zibileko destakamenduaren gainean Nafarroako Gobernuak eskura duen informazioari buruzko galdera, Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunak egin (6. or.).

—Tuteran Foruzaingoaren Koartel bat ezartzeko epeak betetzeari buruzko galdera, Alberto Catalán Higuera Foru Parlamentari jaunak egin (7. or.).

—Soto del Ramalete izeneko Natur Erreserba ukitu duten eta Ebro ibaiertzean egin diren obrei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (7. or.).

—Lan absentismoa neurtzeko ezarritako hobekuntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako Testu Arau-emaileak:**

—Nafarroako Parlamentuak izendatu behar duen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kidea hautatzea (11. or.).

---

**A Saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamenduari eta balio igoerari mugak jartzen dizkiena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 16an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tezari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku-luak aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1996ko irailaren 9an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasiera-ko seinalamenduari eta balio igoerari mugak jar-tzen dizkien Foru Lege proiektua igorri du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramale-en Batzarrarekin bat, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seina-lamenduari eta balio igoerari mugak jartzen diz-kien Foru Lege proiektua ohiko ihardunbidez bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza Barne eta Funtzio Publikoaren Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldiz-kari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epe bat irekiko da, 1996ko urria-ren 9ko 12etan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoare-kin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamen-tariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1996ko irailaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamenduari eta balio igoerari mugak jartzen dizkiena**

### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren defizita kontrolatu eta gutxitzeko politikari eusten dio eta borondatea du, aldi berean, gizarte ongizatean lortutako maila mantendu eta gastuaren eremu sozialeko alderdi solidario eta aurrerazaleak indar-tzeko.

Azken aldian, zenbait neurri hartu dira Nafa-rroko Administrazio Publikoetako klase pasiboen esparruan. Horien artean, garrantzitsuak dira jubi-latu, alargun eta umezurtzen gutxienezko pentsio-en igoera; Gizarte Segurantzaren araubideetan kotizatutako denboraldien zenbatekoa, eskubide pasiboetarako hartzeak eta pentsioa kalkulatzeko kotizazio edo zerbitzu urteen kuota edo por-tzentaia zehaztearren; hartzeko erregulatuzailearen hobekuntza, lan istripu edo lanbideko eritasuna-ren ezintasunengatiko jubilazio pentsioen kasuan, baita alargun edo umerzurtzendako pentsioetan ere, lan istripuak edo lanbideko eritasunak herio-tza ekarritakoetan.

Hobekuntza horiek ez dituzte ordainetan elkar-tasun neurriak edo gastuari eustekoak izan espa-rru berean, hala nola, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan gehie-nezko muga edo topea ezartzea, gizarte aurrei-kuspen publikoen gainerako araubideetan finka-tua dagoen bezala.

Hortaz, eta Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen araubidea behin betikoz fin-katu aurretik, komenigarri da gehienezko tope bat jartzea pentsioen hasierako seinalamenduan 1997ko urtarrilaren 1etik aitzina sortzen diren Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasi-boetan, baita muga batzuk ere data hori baino lehen emandako pentsioen urteko balio igoeraren

zenbatekoan, igoera horrek pentsioetan aipatu topea baino handiagoa den urteko balio osokoa sortzen duenean.

**1. artikulua.** Mugak Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetako hasierako seinalamenduan.

1. 1997ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako Administrazio Publikoetako edozein Montepioren kontura ezarten diren pentsioek ezin izanen dute urte horretan 3.844.512 pezetako zenbateko osoa gainditu urteko kalkuluan, non ez den zifra hori aipatu ondorioekin eguneratzen 1997ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean.

2. Titular batek aldi berean baldin badu eskubidea Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsio baterako eta beste pentsio publiko baterako edo gehiagorako, haien guztien hasierako seinalamenduaren ondorioz jaso beharreko zenbatekoa, osotara, aurreko idazatian ezarritako muga berberei egonen da loturik.

Horretarako, Nafarroako Administrazio Publiko pentsioaren hasierako seinalamendua egiteko organo eskuduna harremanetan jarriko da beste Administrazioetakoekin, lehenik eta behin, aipatu pentsio publikoen osoko zenbatekoa zehazteko, izan ere, haien baturak 1997ko ekitaldiko gehieneko topea gainditzeko badu proportzionalki murriztuko baitira soberakina xurgatu arte, artikuluko honetako 1. puntuan ezarritakoari jarraituz.

Beste Administrazio Publikoari aplikatzeko arategiak biderik uzten ez badu pentsioa proportzionalki murrizteko, Nafarroako Administrazio Publikoetako organo eskudunak kendu edo gutxituko du onuradunari Montepioren kargura dagoen pentsioaren osoko zenbatekoa, titularraren eskubidekoak diren pentsioen baturak 1997ko ekitaldiko gehieneko topea zenbatean gainditu, horrenbesteko zenbatekoa xurgatzeko behar dena, alegia, artikuluko honetako 1. puntuan ezarritakoari jarraituz.

3. Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsio baten hasierako seinalamendua egiten denean beste pentsio publiko bat edo gehiago jasotzen ari denaren alde, eta haien guztien baturak, aipatu seinalamenduarena barne dela, 1997ko ekitaldiko gehieneko topea gainditzeko badu, artikuluko honetako 1. puntuan ezarritakoari jarraituz, artikuluko bereko 2. puntuan ezarritako prozedura beteko da, haien baturak aipatu muga zenbatean gainditu, haren kopurua xurgatzeko.

4. Nafarroako Administrazio Publikoan hasierako seinalamendua egiten duen organo eskudu-

nak ez badaki zenbatekoak diren edo zer nolakoak diren pentsionistaren gainerako pentsioak, behin-behinekoz egiten da seinalamendu hori harik eta behar diren frogak erakutsi arte. Behin-behineko seinalamenduak behin betikoz erregulizatutakoan, titularra behartua egonen da bidegabe jasotakoa itzultzera, hurrengo hilabetekoetan nahi izanez gero.

5. Pentsio publiko bat baino gehiago direnean hasierako seinalamenduak aldian behin berrikusi edo ikuskatuko dira.

**2. artikulua.** Pentsioen balio igoeraren muga Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboetan.

1. Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioek ez dute balioa handituko 1997an haien zenbateko osokoa, urtekoa, titularrak beste pentsio publikoetatik jasotzen duen urteko zenbateko osokoari gehiturik 1997ko hasierako seinalamenduetarako gehieneko topea baino handiagoa bada, Foru Lege honetako 1. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. Eguneratzeko eskubidea izanik, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioen 1997ko balio igoeraren ondorioz urteko balio osokoa ez da 1997ko hasierako seinalamenduetarako ateratzen den gehieneko topea baino handiagoa izanen, Foru Lege honetako 1. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. Titular batek bi pentsio publiko edo gehiago jasotzen dituen kasuetan, haien guztien urteko balio osokoen batura, balioa handitu behar dutenak handituta, ez da aurreko idazatian aipatu gehieneko topea baino handiagoa izanen. Gainditzeko badu, igoeraren zenbatekoa proportzionalki gutxituko da likido horren gaineko soberakina xurgatu arte.

Horretarako, Nafarroako Administrazio Publikoetan bere klase pasiboen pentsioen balioa igozteko eskudunak diren organoek beren karguko pentsioen urteko gehieneko muga zehaztuko dute. Muga hori zifra bat izanen da, entitatearen karguko pentsioek titularrak jasotzen dituen pentsio publiko guztiekin duten proportzio bera izanen duena 1997ko ekitaldirako ateratzen den gehieneko topearekin, Foru Lege honetako 1. artikuluko 1. puntuan ezarritakoari jarraituz.

Muga hori lortzeko formula hau aplikatuko da:

$$\text{MUGA} = \frac{\text{Gehieneko ligo beharreko pentsioa}}{\text{Titularrak jasotako pentsioen osoko zenbatekoa (igo beharrekoa barne)}} \times \text{topea}$$

4. Pentsioaren balioa igotzeko eskumena duen Nafarroako Administrazio Publikoetako organoak ezin badu, modu frogagarrian, onuradunak jasotzen dituen beste pentsio publikoen zenbatekoa egiaztatu, behin-behinekoa izanen da balio igoera, froga egokiak egiaztatzen ahal diren arte. Behin betiko erregularizazioak pentsioaren titularrak bidegabe jasotakoa itzultzera behartuko du, halakorik baldin bada, hurrengo hilabetekoan kargura nahi izanez gero.

Dena den, pentsio publiko bat baino gehiago direnean, igotako balioak berrikusi edo ikuskatuko dira aldiaren behin.

**3. artikulua.** Aurreko mugetatik salbuetsitako pentsioak.

Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamendu eta balio igoeraren mugei buruzko arauak, aurreko

artikuluetan bildutakoak, aplikatzeko, ez dira kontutan hartuko ekintza terroristen ondoriozko pentsio bereziak, ezta gero batean arautegiak izaera orokorrean ezar dezakeen beste edozein pentsio publiko ere.

#### **Xedapen Indargabetzailea**

Indarririk gabe geratzen dira Foru Lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko arau guztiak.

#### **Azken Xedapenak**

**Lehendabizikoa.** Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari behar diren arauak eman ditzan Foru Lege hau garatzeko.

**Bigarrena.** Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**F Sails:**  
**GALDERAK**

---

## **Foruzaingoak dituen baliabideak eta Gobernuaren Jauregiko segurtasun sistemei buruzko galdera**

*MARTÍN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 11n egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Foruzaingoak dituen baliabideak eta Gobernuaren Jauregiko segurtasun sistemei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko irailaren 12a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marcok, "Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean honako galdera egin du, idatziz erantzuteko:

Aurreko inguruabarrak alde batera utziz, urte honetan zehar hainbat alditan barregarri ipini dira

Foruzaingoa eta Gobernuaren Jauregiko segurtasunerako ezarri omen diren prebentzio sistemak.

Azken aldia orain dela egun gutxi izan zen, eta gainera, giroa zela medio, gertatutakoaren antzeko jarduketa izan zitekeela aurreikusitako ahal zelaririk (Diputazioko iturrian kateatzea).

Horregatik guztiagatik jakin nahi da:

1.- Ba al dauzka Foruzaingoak horrelako egoerak (teilaturako igoerak, balkoitara, iturrira..e.a.) galarazteko behar diren baliabide egokiak?

2.- Zer inguruabar direla medio errepikatzen ari dira horrelako egoerak, hartutako neurriek emaitzik izan ez dutela?

3.- Zer jarduketa eta neurri berri abiaraziko ditu Gobernuak antzemandako hutsuneak zuzendu eta, azkenotan gertatzen ari den bezala, umoristendako inspirazio-iturri ez bihurtzeko?

Iruñean, 1996ko irailaren 3a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## **Tuterako Katedraleko kanpoko argiteriari buruzko galdera**

*MARTÍN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 11n egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako Katedraleko kanpoko argiteriari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko irailaren 12a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marcok, "Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean honako galdera egin du, idatziz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak, horretarako dagokion erabakiaren bidez, Tuterako Udalari gaztigatu berri dio, Tuterako Katedralean ezarri zen kanpoko argiteria bi hilabeteren epean kendu behar duela, bes-

teak beste Espainiako Legeriaren kontrakoa delako, nahiz horregatik bakarrik ez den.

Horregatik guztiagatik jakin nahi da:

1.- Zer ziok eragin duten Gobernuak aipatu erabakia hartzea, adierazpen publikoen arabera eta Udalaren iritziz, instalazioa "Segoviako Akueduktua bezalako beste hainbat monumentu historikoren argiztapenean erabilitako parametroei jarraituz" egin dela kontuan harturik.

2.-, Bi Administrazioen arteko moduak egokiek izan ote diren ala ez diren afera dela eta sor-

turiko egoera zaila denez, ez litzateke aski izango Kultura Departamentuak antzemandako akatsak (horiek izanez gero eta zuzentzen ahal badira) zuzentzea, egindako guztia kendu beharrean?

3.- Benetan uste al du Kultura Departamentuak kasu honetan jardun den era hobereana eta egokiena dela?

Iruñea, 1996ko irailaren 2a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## **Itoitzeko urtegiara bidaltzeko den Goardia Zibileko destakamenduaren gainean Nafarroako Gobernuak eskura duen informazioari buruzko galdera**

*PABLO LORENTE ZAPATERÍA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 11n egindako bilkuran, Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunak Itoitzeko urtegiara bidaltzeko den Goardia Zibileko destakamenduaren gainean Nafarroako Gobernuak eskura duen informazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko irailaren 12a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Pablo Lorente Zapateriak, "Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean honako galdera egin du, idatziz erantzuteko:

Orain dela egun gutxi gure Komunitateko egunkari batean argitaratu zen Goardia Zibilak destakamendu bat bidaliko duela, urritik aurrera, Itoitzeko Urtegiko obretara.

Honen aurrean jakin nahi da:

1.- Ba al du Nafarroako Gobernuak honi buruzko informaziorik?

2.- Baldin badauka, noiz, nola eta norengandik jaso zuen informazio hori?

3.- Zertan datza Nafarroako Gobernuak eskura duen informazioa?

4.- Zer deritzo Nafarroako Gobernuak Goardia Zibilaren destakamendua Itoitzeko Urtegiko obren tokian ezartzeari?

Iruñean, 1996ko irailaren 3a

Foru Parlamentaria: Pablo Lorente Zapatería

## **Tuteran Foruzaingoaren Koartel bat ezartzeko epeak betetzeari buruzko galdera**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 11n egindako bilkuran, Alberto Catalán Higuera Foru Parlamentari jaunak Tuteran Foruzaingoaren Koartel bat ezartzeko epeak betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko irailaren 12a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Alberto Catalán Higuera sek, "Unión del Pueblo Navarro" Parlamentari Taldeari atxikitako Nafarroako Gorteetako kideak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean honako galdera egin du, idatziz erantzuteko:

Urtarrilean eta maiatzean, eta Parlamentari honek egindako galderei erantzunez, Tuteran Foruzaingoaren Koartela ezartzeko epeak beteko ziren datei buruzko aurreikuspenaren berri ezagutu genuen.

Urtarrilean emandako informazioaren arabera, "aurreikusten da obrak hasiko direla uztailean, eta horiek, gutxi gorabehera 9 hilabete iraungo dute eta 1997ko martxoan amaituko dira".

Maiatzeko erantzunak aurreikusten zuen obrak 1996ko uztailean esleitzea, obren hasiera irailera arte atzeratzen zuen, eta horien amaiera 1997ko ekainera arte.

Baina, beste zenbait informazioaren arabera, ezarritako epeak, berriro ere, ez dira beteko. Horregatik hurrengo galderen erantzuna jakin nahi da:

1.- Zer zio direla eta, ez dira beteko Lehendakari-tza, Barne eta Lan Departamentuak Tuteran Foruzaingoaren Koartela ezartzeko eman zituen azken epeak?

2.- Noizko aurreikusten da Tuterako Foruzaingoaren Koartela abiaraztea?; eta horretaz gain, destakamendu hori ezartzeko proiektuaren fase bakoitzaren epeak beteko ziren datak, bere garaian Parlamentuak onetsitako Foruzaingoari buruzko Plan Zuzentzailean jaso zirenak.

Corellan, 1996ko irailaren 3a

Foru Parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Soto del Ramalete izeneko Natur Erreserba ukitu duten eta Ebro ibaiertzean egin diren obrei buruzko galdera**

*MARTÍN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 16an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Soto del Ramalete izeneko Natur Erreserba ukitu duten eta Ebro ibaiertzean egin diren obrei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko irailaren 19a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

"Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida" Parlamentari Taldeko kidea den Martín Landa Marco Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak ezartzen duenaren babesean, ondorengo galdera hau egiten du premiaz idatziz erantzun diezaioten:

Arestian zenbait obra egiten hasi da Ebro ibaiertzean, Tuterako Udal Dermioaren barruan. Obra hauek larriki ukitu dute Soto del Ramalete (R.N. 32) izeneko Natur Erreserba, baita Naturgu-

neei buruzko Foru Legeak arautzen duen Babes Eremua ere.

Obrak Ebroko Konfederazio Hidrografikoak hasi ditu; ez da Konfederazioak Nafarroako Ingurugiroari buruzko Legeak hausten dituen lehen aldia, aitzitik, joera hori errepikakorra da.

Horregatik guztiagatik honako hau jakin nahi da:

1. Ea egia ote den obra horiek Nafarroako legeen aurkakoak izateaz gain, bestelako legeen aurkakoak ere badirela jendaurreko erakusketan jarri ez direlako eta balizko ukitutakoek alegazioak egiteko epea ireki ez delako... eta abar. Hau honela bada, zeintzuk dira Nafarroako Gobernuaren

Ingurugiro Departamentuak egin dituen jarduketak?

2. Zer neurri hartu du edo hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoak agindutako legearen aurkako obra horiek sortu dituzten kalteak ezaba daitezen eta egoera lehenagora dadin?

3. Zer jarduketa egin du edo egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak Nafarroak, Ingurugiro arloan bere dituen eskumenak erabiliz, bere buruari eman dizkion legeak betearazteko?

Iruñean, 1996ko irailaren 13a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## Lan absentismoa neurtzeko ezarritako hobekuntzei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Calixto Ayesa Dianda Foru Parlamentari jaunak lan absentismoa neurtzeko ezarritako hobekuntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko ekainaren 21ko 40 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abuztuaren 12a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Honako hau izenpetzen duen Lehendakaritza Kontseilariak, Calixto Ayesa Dianda UPN Parlamentari Taldeko Foru Parlamentariak Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako lan absentismoaren zenbait gorabeherari buruz eginiko eginiko galderari dagokionez, zuri erantzun hau jakinarazi nahi du:

a) TEMPOREL deritzon txartel magnetikoaren bidez, administrazioko bulego guztietan bertan daudenak kontrolatzen segitu da, hura ia Departamentu guztietan ezarririk dagoelarik.

Programa horretatik langileen lan absentismoari buruzko datuak lortzen dira, zio guztiengatik. Horrek lantokian sartzeko eta bertatik ateratzeko orduak lanaldia betetzeko gaur egun ezarriko malgutasunarekin kontrolatzeko ere balio du

(abenduaren 26ko 597/1995 Foru Dekretuko 4. artikulua).

Gaisotasun edo istripuaren ondoriozko lan absentismoari dagokionez, alta eta baja emateko eta baja berresteko agirien ereduak onesteko eta abian jartzeko behar diren lan teknikoak egiten ari dira, ekainaren 28ko 203/1993 Foru Dekretua garatzeko asmoz. Hori horrela, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak hobeki kontrola lezake zio haiek eraginiko lan absentismoa.

Azkenik, lan absentismoak eraginiko ordezkapenen kostuaren informazio ekonomikoa lortzeko behar den aplikazio informatikoa badago arian.

b) eta c) Administrazioak eta sindikatuek 1995eko abenduaren 1ean izenpetu zuten Hitzar-menak atal batzuk biltzen ditu, indarra duen bitartean garatu behar direnak, hots, 1996tik 1999ra, biak barne.

Atal horietako bat, sindikatu izenpetzaileekin mintzagai eta eztabaidagai oraindik izan ez bada ere, lan absentismoaren azterketa da. Hori dela eta, oraindik ere ez da ikerketarik burutu haren zioez ez eta hura murrizteko ohiz kanpoko neurririk aplikatu ere, Departamentu eta erakunde autonomo bakoitzak kasuan kasuko arazoaren ondorioz har ditzakeen ohiko neurriak deustan galarazi gabe.

d) Abenduaren 26ko 597/1995 Foru Dekretuak, 4. artikuluan, arau bezala, ordu erdiko malgutasuna ezartzen du, egunero lantokian sar-ateratzeko. Lanaldia 7 ordu eta 30 minutukoa da.



Malgutasun horrek posible egiten du ondorengo egunetan egun bateko puntualtasunik eza orekatzea. Horretarako modua eta beharrak Funtzio Publikoaren eta Antolamenduaren Zuzendari Nagusiak langileriari buruz 1996ko otsailaren 22an emaniko argibideetan daude ezarririk. Argibide horiek erakunde autonomo guztietako Zuzendari Nagusi eta Zuzendari Kudeatzaileei igorri zitzaizkien.

Horren ondorioz, 1996ko lehenengo seihilekoan, ordainketetan izaniko deskontu automatikoei 73 lan ordu egin dute.

e) Guztira, Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde autonomoetako absentismoaren ehunekoak, 1996ko urtarriletik ekainera bitarte, % 7,06 da, zioen arabera honelaxe sailkatzen dena:

1.- Gaisotasun edo istripuagatik izaniko lan bajak: % 4,55

2.- Amatasunagatik emaniko baimenak: % 0,64

3.- Foru Komunitateko Administrazio langileendako indarra duen arautegiaren aplikazioaren ondoriozko bestelako zioak:

– Prestakuntzarako eta euskara ikasteko baimenak: % 0,57

– Norberaren aferengatik emaniko baimenak: % 0,56

– Bestelako baimen ordainduak eta sindikalak: % 0,70

Lauki bat igorri da, non zioen, Departamentuen eta erakunde autonomoen arabera sailkatzen baitira.

Lauki horretan ez dira Hezkuntza Departamentuaren menpeko langile irakasleak aipatzen. Izan ere, departamentu hartaz urtero prestatzen dira

lan absentismoari buruzko datuak, eskura dauden azkenak 1995ekoak direlarik.

f) 1996ko urtarriletik ekainera bitarteko lan absentismoaren kostu ekonomikoa, eginiko ordezkapenentarako aldi baterako kontratuetan izaniko gastuari dagokionean, hauxe da:

1.- Administrazio Nagusia: 34.885.689 pezeta, honela banatuak:

Lehendaritza .....	5.624.028
Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua .....	1.132.631
Ekonomi eta Ogasuna .....	2.998.572
Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza .....	4.185.816
Kirol eta Gazteria .....	207.441
Osasuna .....	13.645.559
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapena.....	5.172.672
Industri, Merkataritza eta Turismoa.....	1.047.715
Gizarte Ongizatea.....	871.255

2.- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua: 37.104.831 pezeta.

3.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuari eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagokienez, oraindik ez dago datu zehatzik, erantzun honetako a) atalean aipatzen den aplikazioa oraindik ezartzen ari delako.

Hau jakinarazten dizut, Biltzarreko Erregelamenduko 181. eta hurrengo artikuluetan ezarriko betetzeko asmoz.

Iruñean, 1996ko irailaren 9a

Lehendakaritza Kontseilaria: Federico Tajadura Iso

## 1996KO LEHEN SEIHILEKOKO LAN ABSENTISMOARI BURUZKO DATUAK

	Lan baja Ehunekoa	Amatasuna Ehunekoa	Prestak./ euskara Ehunekoa	Norberaren aferak Ehunekoa	Baimen ordainduak/sind. Ehunekoa	Guztira Ehunekoa
Lehendakaritza	5,77	0,58	0,60	0,47	1,52	8,96
N.A.P.I.	9,47		0,77	0,01		10,26
N. Emakumearen I.	0,48		2,82		0,48	3,79
Ekonomi eta Ogasuna	0,51	0,37	0,15	0,32	0,59	1,96
Toki Administrazioa	0,67			0,36	5,93	6,97
Ingurugiroa	1,95		0,46	0,33	0,61	3,37
Hezkuntza eta Kultura	2,81	0,38	1,75	0,59	1,51	7,07
N. Kirol eta Gazteriaren I.	1,79		0,54	0,43	0,70	3,47
Osasuna	6,31	0,32	0,60	0,40	0,86	8,51
Osasunbidea	4,75	0,73	0,53	0,59	0,32	6,94
Lan Osasuna	2,70	0,88	2,35	0,71	5,14	11,81
Herrilan, G. eta K.	7,69	0,16	0,51	0,89	0,44	9,41
Nek., Abeltz. eta H. S.	3,02	0,68	0,27	0,92	2,48	9,12
Nmez	1,03			0,94	0,44	2,41
Industri, Merk. eta Tur.	2,81	0,34	0,88	0,30	1,26	5,61
Gizarte Ongizatea	0,45		0,63	0,55	0,17	1,81
N. Gizarte Ongiz. I.	4,64	0,71	0,75	0,46	1,79	8,37
Nafarroako Gobernua	4,55	0,64	0,57	0,56	0,70	7,06

---

**H Saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**Nafarroako Parlamentuak izendatu behar duen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kidea hautatzea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko irailaren 11n eginiko bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Unibertsitateko Publikoko Gizarte Kontseiluko Lehendakariak Parlamentu honi jakinarazi dionez, Gizarte Kontseiluan postu bat hutsik gelditu da, kide bat, Estanislao Aranzadi Rementería jauna, Nafarroako Parlamentua ordezkatzuz hura osatzen zuena, berriki zendu baita.

Abenduaren 9ko 20/1994ko Foru Legeko 9. artikuluan ezarritakoaren bat, Parlamentuari dago-kio orain hutsik dagoen postuaren aurreko jabeari dagokion agintaldi-zatirako beste kide bat izendatzea. Bidezko da, beraz, hutsik dagoen postua betetzeko behar den jardunbideari ekitea, beste kide bat izendatuz.

Hori horrela, ERABAKI DA:

**1.-** Xedatzea, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kidea hautatzeko, Estanislao Aranzadi Rementeria jaunak zentzean hutsik utziriko postua betetzearren, 1995eko irailaren 4an onetsi eta 1995eko irailaren 14an, 6. NPAOn, argitaratu ziren araei lotuko zaiela.

**2.-** Postu hori betetzeko hautagaiak aurkezteko epea 1996ko irailaren 23an bukatuko da, 9:30etan.

**3.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1996ko irailaren 11a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.700 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 125 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 160 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--